

həfərrəəh

euskarəz

bizitzeko

eskubidea



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

maiatzak 15

18:00etan

golem zinemak



AEK · Berria · EHE · Euskal Idazleen Elkarte · Elkar · EMUN · IKA · Ikastolen
Elkarte · Oinarriak · UEMA · Sortzen-Ikasbatuaz · Topagunea ...

Quien quiera vivir en Euskara en Nafarroa que tenga la posibilidad de hacerlo. No pedimos más que eso: derecho a vivir en Euskara en Nafarroa.

Somos muchos los vascohablantes en Nafarroa. Somos más que hace veinte años, gracias al esfuerzo de los ciudadanos y las ciudadanas: unos aprendiendo el Euskara, otros enseñándolo a sus hijos e hijas, hablándolo o secundando iniciativas en favor del Euskara. La transmisión del Euskara va a mas, despacio, pero sin pausa. El Euskara está vivo en Nafarroa. El Euskara se recupera en Nafarroa.

Resulta incomprensible la forma en la que arremete el Gobierno de Nafarroa contra los euskaldunes. Últimamente la ha intensificado. Suprimiendo licencias y subvenciones. Marginando el Euskara dentro el sistema educativo. Impartiendo ayudas económicas irrisorias a quienes quieren aprender Euskara, asfixiando a los euskaltegis, recortando las iniciativas y actos en Euskara... hace todo lo posible para ahogar al Euskara en todos lugar y momento.

En Nafarroa es imposible vivir en Euskara. A los euskaldunes se nos trata como a ciudadanos y ciudadanas de segunda. No obstante, Nafarroa necesita a los vascohablantes, la pluralidad enriquece a Nafarroa. La mayoría social de Nafarroa rechaza tanto la exclusión lingüística como las agresiones en Nafarroa.

Queremos que se garantice el **“derecho a vivir en Euskara en Nafarroa”**, tanto en el norte como en el sur. Derecho a estudiar en Euskara para nuestros niños y niñas y jóvenes. Derecho a aprender Euskara para todos los ciudadanos y ciudadanas que así lo decidan. Derecho a comprar, a recibir la publicidad y el etiquetaje en Euskara. El derecho a hacer los trámites con la administración en Euskara. Derecho a recibir en Euskara la información en la televisión, prensa, medios locales, radio e Internet. Derecho a hacer deporte en Euskara y a disfrutar en Euskara del tiempo de ocio...

Para todo eso, y para conseguir las condiciones que nos llevarán a la normalización del Euskara, pedimos el apoyo y la ayuda de la ciudadanía navarra. Puesto que no tenemos intención de quedarnos inmóviles ante las graves agresiones que se suceden. Pero no sólo eso, estamos convencidos y convencidas de que cada uno de nosotros, los movimientos sociales y cada persona tenemos tareas concretas.

De hecho, eso que parece tan básico en democracia hoy día, resulta imposible en nuestro territorio. Además, esta situación tiene responsables con nombre y apellido. Responsables políticos, cargos públicos que se desentienden cuando suceden estas injusticias. Resulta lamentable la aversión del gobierno de Nafarroa hacia el Euskara. Nada hay más triste que un gobierno que actúa en contra de los ciudadanos y ciudadanas.

Quienes queremos vivir en Euskara hace tiempo que afrontamos dificultades. Aun así, hemos sabido reunir fuerzas y avanzar. Y eso es precisamente lo que proponemos: que nos reunamos y reivindicemos el **“derecho a vivir en Euskara en Nafarroa”**.

Por inverosímil que parezca nos vemos obligados a salir a la calle a reivindicar un derecho fundamental. Queremos hacer un llamamiento a los navarros y las navarras de todas las ideologías para que acudan a la manifestación. Y, por supuesto, a toda persona que quiera que el Euskara sobreviva en Nafarroa.

Con esta manifestación saldremos a la calle para reivindicar que las cosas se pueden hacer de otra manera.

La política lingüística actual del Gobierno de Nafarroa no va a normalizar el Euskara, no garantiza los derechos lingüísticos de los navarros y navarras. En la actualidad el Gobierno de Nafarroa gobierna en contra de sus ciudadanos y ciudadanas, ¿existe una injusticia mayo? El Gobierno de Nafarroa lo está haciendo mal, mal e incorrectamente. Queremos vivir en Euskara, queremos vivir utilizando la lengua propia, queremos vivir en nuestra lengua y eso no va a cambiar. Todo sería más sencillo si diéramos pasos en firme hacia la normalización, pero para eso son necesarios otro estatus jurídico, otra política.

Porque no queremos ser ciudadanos y ciudadanas de segunda, porque el Euskara y los euskaldunes necesitamos respirar y porque es cuestión de respeto reivindicemos todos y todas: **“Derecho a vivir en euskara en Nafarroa”**. **Para eso vamos a realizar una manifestación en Iruñea el próximo 15 de mayo, desde los Golem a las 18:00.**

Nafarroan, euskaraz bizi nahi duenak, izan dezala horretarako aukera. Hori besterik ez dugu eskatzen: Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea.

Euskal hiztun asko gara gaur egun Nafarroan. Orain dela hogeitun urte baino gehiago, herritarren ahaleginei esker: batzuek euskara ikasiz, beste batzuek seme-alabei irakatsiz, euskaraz hitz eginez edo euskararen aldeko ekimenak lagunduz. Euskararen transmisioa, poliki baina etenik gabe, hazten ari da Nafarroan. Euskara bizirik dago Nafarroan. Euskara biziberritzen ari da Nafarroan.

Ulertezina da Nafarroako Gobernuak nola ari den euskaldunon kontra. Modu bereziki bortitzean ari da azkenaldian. Euskarazko komunikabideei lizentziak eta diru-laguntzak kenduz. Hezkuntza-sisteman euskara baztertuz. Euskara ikasi nahi dutenei diru-laguntza ezin urriagoak emanez, euskaltegiak itoaz, euskarazko ekimen eta ekitaldi guztiak murriztuz... Euskara ahal duten une eta gune guztietan itozteko ahalegin guztiak egiten ari da.

Nafarroan euskaraz bizitzea ezinezkoa da. Bigarren mailako herritar gisa tratatzen gaituzte euskaldunok. Euskal hiztunak behar ditu, ordea, Nafarroak, aniztasunak aberastu egiten baitu Nafarroa. Eta nafar gizartearen gehiengo zabalak ez du nahi ez hizkuntza bazterketarik, ez halako erasorik Nafarroan.

“Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea” bermatzea nahi dugu, iparraldean eta hegoaldean. Gure haur eta gazteentzat, ikasketak euskaraz egiteko eskubidea. Euskara ikasi nahi duten herritar guztientzat, horretarako eskubidea. Salerosketak, publizitatea eta etiketak euskaraz jasotzeko eskubidea. Administrazioarekin euskaraz egiteko eskubidea. Euskarazko kultura-sormenaz gozatzeko eskubidea. Telebistaz, prentsez, tokiko hedabideen bidez, irratiz zein internetez informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea. Kirola euskaraz egiteko eta aisia euskaraz gozatzeko eskubidea...

Horretarako, eta euskararen normalizaziora eramanez gaituzten baldintza berriak lortzeko, nafar jendartearen babesa eta laguntza eskatzen dugu. Izan ere, gertatzen ari diren eraso larrien aurrean ez dugu geldi egoteko asmorik. Baina ez hori bakarrik, uste sendoa dugu beste egoera batera eramango gaituzten oinarriak jartzeko gutariko bakoitzak, gizarte eragileok, norbanakook zeregin zehatzak ditugula.

Izan ere, demokrazian hain oinarrizkoa dirudien hori ez da posible gaur egun gure herrialdean. Eta egoera honek izen-abizen jakineko arduradunak ditu. Arduradun politikoak, kargu publikoak eta halako bidegabekeriaren aurrean beste alde batera begiratzen dutenak. Penagarria da Nafarroako Gobernuaren euskararen kontrako jarrera. Ez dago gauza tristeagorik bere herritarren kontra ari den Gobernu bat baino.

Euskaraz bizi nahi dugunok ez dugu egoera errazik izan aspaldi. Hala ere, jakin dugu indarrak batu eta aurrera egiten. Hori da, hain justu, proposatzen duguna: batzea, eta aldarri egitea **“Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea”**.

Gezurra badirudi ere, oinarrizko eskubide bat aldarrikatzera ateratzen behar dugu kalera. Ideologia guztietako nafar guzti-guztiei egin nahi diegu manifestaziora etortzeko deia. Den-denei, eta, jakina, Nafarroan euskara bizirik nahi duten lagun guztiak.

Manifestazio honekin, gauzak beste modu batera egin daitezkeela eta egin behar direla aldarrikatzera aterako gara. Gaur egun Nafar Gobernuak indarrean duen hizkuntza-politikak ez du euskara normalizatuko, ez ditu nafarren hizkuntza-eskubideak bermatzen. Gaur egun, Nafarroako Gobernuak bere herritarren kontra gobernatzen du, bidegabekeria handiagorik? Gaizki ari da, gaizki eta oker, Nafar Gobernuak. Euskaraz bizi nahi dugu, bertakoa den hizkuntza erabiliz bizi nahi dugu, geure hizkuntzan bizi nahi dugu eta nahi hori ez da aldatuko. Dena errazagoa litzateke euskararen normalizaziorako pauso sendoak emango bagenu, baina, beste estatus juridiko bat, beste politika bat, behar da horretarako.

Bigarren mailako herritarrek izan nahi ez dugulako, euskarak eta euskaldunok Nafarroan arnasa behar dugulako, eta gizalegezkoa delako, aldarri egin dezagun guztiok batera: **“Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea”**. **Maiatzaren 15ean, 18:00etan, Golemetatik, manifestazioa egingo dugu Iruñean hori aldarrikatzeko.**